

# beste eredu ekonomiko baten alde



## euskal herritarrok hitza eta erabakia

Ez gaude ez dezelerazio garaian ez atzeraldian, ez eta ekonomia krisialdian ere, egoera askoz ere sako-  
nagoan gaude, ekonomia eredu ahitu batean, zeina  
berez harrapakaria izaki, ez baita bideragarri.  
Daukagun lege sistema honen ezaugarri funtsezko-  
tako bat da lehendik dirauen gizarte eredu bat ugala-  
ratzea. Eta, hori, ez da aintzakotzat hartu ohi, baina  
funtsezkoa da Espainiako eta Frantziako estatuek  
inposaturiko esparru juridiko-politikoa ulertu ahal  
izateko. Euskal burgesiak onaturiko esparrua da  
hori, Euskal Herria bi lurraldetan banatzen duena,  
eta, beraz, ez dio inolako aukerarik uzten etorkizu-  
neko ekonomia helburu berriei nola aurre egin eraba-  
kitzeko, eta zapalkuntza sexu-ekonomikoari zein  
klase zapalkuntzari bide ematen dio.

Eskualdeko ordezkari politikoek -PSE, UMP, EAJ eta  
UPNkoek batik bat-, 90eko hamarkadako hasieraz  
geroztik, beren egin dute desberdintasunaren insti-  
tuzionalizatzea, eta ekonomia eliteen mende jarriak  
dituzte egungo instituzioak. Baztertze prebendak  
eratu dituzte, gizarteko kiderik gehienen ekonomia  
baliabideen gañean, eta sarri askotan Ezker  
Abertzaleari ezarritako apartheid-az baliatu dira.  
Kontsumo neurrigabearen ereduaren alde egin dute,  
zeina energiaren gañezka baitabil; merkaturatu egin  
dituzte aisia eta kultura; lehen sektorea hilzorian utzi  
dute; transnazional handien interesen mende laga  
dute industria, eta lekutzei bide eman diete; gizarte  
gastua murriztu dute, zerbitzu oinarritzakoak pribati-  
zatu; gizarte eta lan eskubideak murriztu edo  
kendu dituzte, mendekotasunen bat duten pertso-  
nen zaintza emakumeen esku utzita eta, ondorioz,  
haien egoera are eta prekarioago bihurtuta. Eta  
gizarte eta lan eskubide horiek murriztu dituzte, hain  
zuzen ere, Ibarretxek eta Sanzek hain harro diotenez,  
Euskal Herrian aberastasun oparoa nagusi den  
unean. Kontua da aberastasun hori ez dela banatzen  
gizarte irizpide bidezko batzuen arabera. Izan ere,  
eskualdean eskualdeko burgesia, EAJ eta UPNrena  
batez ere, eraikuntza alorreko presio taldeari lotu-  
lotua dago, eta adreiluz eta porlanez «eraikitako  
Euskal Herri» bat proposatzen dute, biztanleen premi-  
ak kontuan izan gabe: AHT, ingurabideak, super-



portuak, saltoki handiak, Nafarroako ubidea eta Itoitz, Guggenheim berriak. 1987tik 2006ra bitartean, EAJren belaunaldi bakar batek 3.283 hektarea porlaneztatu ditu Euskal Herrian. Eta AHT eta beste hainbat azpiegitura egiten badira, hektarea kopurua are gehiago handituko da.

Egiturazko gailentasun eta ustiapen egoera halakoa are argiago eta nabarmenago egiten da, esate baterako, orain gauden ekonomia krisialdian. Kapitalismoak krisialdi ziklikoak izan ohi ditu, eta orduan enpresaburuak mozkin tasek behera egiten dute, eta biztanle guztiak gerrikoa estutzea nahi izaten dute eta diru publikoa erabiltzea haien negozioei bere hartan iraunarazteko. Azken urteetan oparoaldi ekonomikoa izan denean, zergatik ez dituzte mozkinak banatuz soldatak igo, enpleguaren kalitatea hobetu edota aberastasuna banatzeko fiskalitatea aldatu?

Panorama hori izanik, beren bizi-baldintzak are eta prekarioago bihurtzen zaizkie herri sektore askori, ezin eramanezkoak izateraino ia: familiak guztiz zorpetzen dituzten hipotekak, oinarritzko elikagaien eta karburanteen garestitzea, langabeziaren mehatxua, gizarte zerbitzuak murriztu edo pribatizatu egiten dira, prekaritateak gora egiten du... Bizi baldintza duina garatu ahal izatea ia ezinezkoa egiten da, bizitza osorako zorpetzei egin behar zaielako aurre.

Bien bitartean, Zapatero, Ibarretxe eta Sanz gobernariak, berriz -ekonomia eliteekin elkar harturik-, sistema neoliberal berrabiarazi nahi dute, eta egungo esparru juridiko-politiko berrindartu. Hala, bankuak zuzenean diru publikoarekin laguntzen dituzten bitartean, eraikuntza sektorearentzako laguntza zuzenak bideratzen dituzte, sozietateen zergak jaisten dituzte, ondarearen gaineko zerga kendu, 65 orduko lan astea proposatzen dute, pentsioen erreformak planteatzen dituzte, soldatak jaitsierak, enplegu erregulazioak eta kaleratzeak... Baina neurri horiek patronal handia eta burgesia txikia dituzte helburu, gizarte eragileen eta sindikatuen iritzia aintzakotzat hartu ere egin gabe.

Joera inposatzaile horren haritik, halaber, hainbat zapalkuntza mekanismo abiarazi dituzte, beren eskubideak eskatzen dituzten herritarak kontrolatzeko asmoz, Laborantza Ganberarekin gertatu bezala, garraiolarien greban ikusi zen bezala, edota ehunka gazte neurrigabe atxilotuz. Burgesiak bere interesak mehatxatuta ikusten dituenean, zuzenbidezko estatua kuarentenan jartzen

du. Eta hain zuzen testuinguru horretan kokatzen da PSOEk EAJrekin eta UPNrekin batean egindako apustua, zeinak helburutzat baitu ahalik eta gehien ahularaztea Ezker Abertzalea, benetako aldaketari bide eman diezaiokkeen aukera bakarra.

Horiek horrela, kapitalismoa birsortzeaz hitz egiten ari dira dagoeneko patronala eta politika eliteak, eta erreforma txiki batzuek egiteko asmoa dute, sistema horren oinarrietan sakontzeko eta haren funtsa sendotzeko. Horretarako, haien zerbitzura diharduten komunikabideen eta teknokraten zein intelektualek elkarlana izango dute. Herri sektoreok, aldiz, ezin dugu egin behin eta berriro ugaltzen eta betikotzen den ekonomia sistema zein esparru juridiko-politiko bat berrabiaraztearen alde; horrek berekin baitakartza, besteak beste, Euskal Herriaren beraren ukazioa, eta gizartearen ustiapena eta prekarizazioa. Ekonomia ereduak aldatu beharra dago, eta, horretarako, ezinbestekoa izango da demokrazia esparru bat lortzea, autodeterminazioari bide emango diona, eta independentziari eta sozialismoari atek zabalduko dizkiona.

Politika eta gizarte aldaketaranzko bidean, beraz, erabakigarriak izango dira antolaketa eta borroka. Eguneroko jardunetik eta militantziaz, nork bere ekarpena egin beharko dio, ahal duen heinean, nazio eraikuntzarako estrategiari, demokrazia esparru hori erdietsi ahal izateko eta, oraintxetik, Euskal Estatu bat eraikitzen hasteko.

Ezinbestekoa da Euskal Estatu hori sortzea, Euskal Herriak herri gisa bizirik irauteko, Euskal Herriko Langileriari bere eskubide guztiak bermatzeko, eta Ezker Abertzalearen proiektu estrategikoa mamitzeko: independentzia eta sozialismoa. Beste edozein formulazio juridiko-politikok mendekotasunera kondenatzen ditu Euskal Herria eta langileen klasea. Hain zuzen ere, ahalbiderik izan gabe lurraldea antolatzeko, sistema publikoa antolatzeko, gure giza baliabideak berriro antolatu eta optimizatzeke, geuk nahitako ekonomia sistema ezartzeko, zerga sistema antolatzeke, diru politika jakin bat ezartzeko, nazioarteko harremanak geure premien arabera ezartzeko -estatu bat sortu ahal izateko ezinbesteko osagaiak-, horiek guztiak gabe, Euskal Herriak ezin du bere izaera bermatu, herri gisa, eta ezin du ekonomia subiranotasunik izan, ez eta garapen endogenorik landu ere -geure ingurumenarekin bat letorkeenik eta langileen klaseari bizi-baldintzak hobetuko lizkiokeenik.

